# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 1864

*EBAZPENA, 2015eko apirilaren 22koa, Industriako sailburuordearena, krisi-egoeran dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzen 2015eko ekitaldiko deialdiaren berri ematen duena.*

Uztailaren 29ko 158/2014 Dekretuak arautu egiten ditu krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak (2014ko abuztuaren 7ko EHAA, 148. zk.).

Dekretu arautzailearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, egoki da, krisi-egoeran dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak emateko, 2015eko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horrenbestez, aipatutako dekretuaren 10. artikuluan xedatutako ahalmena erabilita, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da uztailaren 29ko 158/2015 Dekretuan xedatutako laguntzen 2015eko ekitaldiko deialdia egitea; laguntza horiek aurrerakin itzulgarrien eran emango dira (158/2014 Dekretuaren bidez, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dira).

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko, gehienez 3.000.000 euro jarriko dira, abenduaren 23ko 5/2014 Legearen bidez 2015eko ekitaldirako, xede horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan onartzen diren aurrekontu-kredituen arabera.

Deialdi honi lotuta emango diren laguntzen zenbateko osoa ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, eguneratutakoan sortutako kopurutik gorakoa. Aipatutako zenbatekoa agortzen bada, ez da diru-laguntza gehiago emango, eta, beraz, handik aurrera, ebazpen honek ez du ondoriorik izango. Horrelakorik gertatuz gero, Industriako sailburuordeak horren berri emango du ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Eskaerak aurkeztako epeak eta tokiak.

1.– Eskaerak eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Industria Garatzeko Zuzendaritzara zuzendu behar dira, eta zuzendaritza horretan bertan aurkeztu daitezke (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo sail horretako lurralde-bulegoetan; edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako lekuetan.

2.– Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin behar da eskaera, eta, horrekin batera, ebazpen honen eranskinean ageri den eskabide-orria aurkeztu. Eskabide-orria Interneteko helbide honetan eskuratu daiteke: www.euskadi.net

3.– Deialdiko laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneko 09:00etan hasiko da; amaitu, berriz, 2015eko urriaren 31ko 15:00etan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 22a.

Industriako sailburuordea,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.

# BIDERATU BERRIA

| Urtea | |
|---|---|

## ESKABIDEA

**B – 1 INPRIMAKIA**

Izen-abizenak:.________________________________________ NAN:____________________________________

Zer naizen enpresa barruan: _______________________ (zein erantzukizun dudan: administraria, gerentea edo beste)

Noren ordezkaria naizen:

Enpresa: ______________________________________________________________________

IFZ/IFK:________________________Industria Erregistroko zenbakia: _______________________________

Sozietatearen helbidea:

Udalerria ______________________________________ PK: __________________________________

Kalea eta zk.: ____________________________________ Telefonoa: ______________________________

Zein sektoretan aritzen den: __________________________________ Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN): __

Zein egunetan dagoen alta emanda jarduera ekonomikoen gaineko zergan:___________

Harremanetarako pertsona: _____________________________________________________________________

Tel.:__________________________Faxa: ____________________ E-posta:_______________________________

**AURKEZTEN DUT:**

Enpresa berregituratzeko eta berrindartzeko plan bat. Denboraldi honetan egingo dugu:

Plana egiteak ---------------------------- euro balioko du, eta udalerri honetan egingo da: -------------------------------------------------

Plan horren ondorioz, -------------------- lanpostu finkatuko dira, eta ---------------- lanpostu egonkor sortu, denbora-bitarte honetan: -------------------------- .

**ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA:**

- ☐ *Enpresako datuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.*
- ☐ *Enpresaren eraketa-eskrituraren fotokopia, bai eta estatutuena ere, eskumeneko erregistroan behar bezala inskribatuta, eta ondorengo aldaketena, halakorik balego.*
- ☐ *Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.*
- ☐ *Eskatzailearen ordezkaritza-ahalordearen fotokopia.*
- ☐ *Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.*
- ☐ *Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria*
- ☐ *Azken bi ekitaldietako urteko kontu ikuskatuen fotokopia; horiek izan ezean, sozietate zergaren azken bi aitorpenak.*
- ☐ *Erantzukizunpeko aitorpena: enpresaren aktiboak osatzen dituzten ondasunak edo eskubideak deskribatzen ditu (ekoizpen-prozesura lotuta egon zein ez), haien balorazio eguneratua dakar (balorazio-irizpide orokorren arabera egina), bai eta haien kargen zehaztapena ere.*
- ☐ *Berregituratze-plana (158/2014 Dekretuaren 11.2 artikuluaren arabera)*

**ESKATZEN DUT:**

BIDERATU.BERRIA programako aurrerakin itzulgarriak erabili nahi ditut berregituratze- eta berrindartze-planean.

------------------------------------------------------------------------------, ----------------------------*(e)ko* ---------------------------------*aren* ------- *(a)*

Sinadura eta zigilua

*Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu dokumentu hau betez eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula izapidetzeko. Datu horiek Ogasun eta Finantzak Sailari laga ahal izango zaizkio Finantzaketa Programen kudeaketarako. Eskatzaileak Legean aurreikusitako eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz).*

# BIDERATU BERRIA

| Urtea | |
|---|---|

## ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

**B– 2 / 1 INPRIMAKIA**

Izen-abizenak : ________________________________________________ NAN:____________

_________________________________________________ enpresaren ordezkari gisa, IFZ:-----------------------------------------------

**ADIERAZTEN DU:**

1.- Sozietatearen helbidea eta lantokia edo esplotazio-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela ☐ (jarri Bai/Ez).

2.- Foru-aldundiekiko zerga-betebeharrak legean jartzen duen bezala erregularizaturik dituela, eta Eusko Jaurlaritzarekikoak edo haren sozietate publiko ororekikoak ere bai ☐ (jarri Bai/Ez).

3.- Gizarte Segurantzarekiko egoera erregularizaturik daukala ☐ (jarri Bai/Ez).

(Luzapen-aldian dituzun zorrak zehaztu, halakorik baldin baduzu).

| KONTZEPTUA | ZENBATEKOA | ESKAERA-DATA | LUZAPENA ZEIN EGUNETAN EMAN ZITZAIZUN |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

(BEZa, PFEZa, sozietateen zerga, besterik)

Honako hauek direla langileei, fakturazioari eta aktiboari buruzko datuak:

| | Langile-kopurua | | Negozio-bolumena (eurotan) | Urteko balantze orokorra (eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| | G | E | | |
| Itxitako azken ekitaldia | | | | |
| Itxitako azken-aurreko ekitaldia | | | | |
| Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko erakunde laguntzailearen ziurtagiriak (Emakunde) edo antzekoak; Enpresaren Berdintasun Plana; Jazarpen Sexistaren aukako Protokoloa; Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak… | Bai.<br>Zehaztu: | Ez. | | |

5.- Partizipazioak zenbatuta, kapitalaren % 25 baino gehiago ez dagoela 250 langile baino gehiagoko ezein enpresaren esku edo 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena eta 43 milioi euro baino gehiagoko balantze orokorra duen ezein enpresaren esku.

6.- Partizipazioak zenbatuta, kapitalaren % ______ 50 langile baino gehiago eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa duen enpresa baten esku dagoela.

Ez dagoela zigortuta -ez zigor-arloan ez administrazio-arloan- diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko inolako debekuren eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne –Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera–, eta, gainera, betetzen duela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun eragingarriari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.2 artikuluan ezarritakoa. Ez dago sartuta ez dirua itzularazteko inolako prozeduratan ez inolako zehapen-prozeduratan.

-----------------------------------------------------------------------------, -----------------*(e)ko* ------------------------------------------*aren* -----------*(e)an.*

Sinadura eta zigilua

# BIDERATU BERRIA

| Urtea | |
|---|---|

## ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

B– 2 / 2 INPRIMAKIA

Izen-abizenak: ________________________________________________ NAN:____________
_________________________________________________ enpresaren ordezkari gisa, IFZ:-----------------------------------------------

Bere egiten ditu, halaber, Administrazioarekin kontratuak eta hitzarmenak egiten dituzten erakundeei eta harengandik laguntzak jasotzen dituztenei 4/2005 Legearen 2.3 artikuluak ezartzen dizkien betebeharrak (4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa), hala nola tratu berdinean oinarritutako printzipioaren mende jardun beharra, aukera-berdintasuna, eta langileen aniztasunari eta diferentziei zor zaien errespetua

9.- Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legean zehaztutakoa betez, esan ea enpresa eskatzaileak armak produzitzen, merkaturatzen eta finantzatzen jarduten duen:

Bai ☐ Ez ☐ (jarri dagokiona)

10.- Laguntza-eskabide honetaz gain, erakunde publiko edo pribatu hauetan ere aurkeztu du eskabidea eta/edo lortu du laguntzarik enpresa berregituratzeko eta berrindartzeko plan honetarako, azpian adierazitako egunera arte:

| ESKAERA-DATA | ERAKUNDEA | PROGRAMA | ESKATUTAKO ZENBATEKOA | EMANDAKO LAGUNTZA |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Halaber, erakunde pribatu edo publikoei ekitaldi honetan proiektu honetarako egingo dizkien laguntza-eskaera guztien berri emateko konpromisoa hartzen du.

---------------------------------------------------------------------------, -----------------*(e)ko* -------------------------------------------*aren* -----------*(a)*

Sinadura eta zigilua

# BIDERATU BERRIA

**Urtea** ______

## AKTIBOEN AITORPENA

B– 3 INPRIMAKIA

Izen-abizenak: ________________________________________________ NAN:____________

__________________________________________________ enpresaren ordezkari gisa, IFZ:-----------------------------------------------

***LABUR-LABUR ADIERAZITA, HAUXE DA ENPRESAREN AKTIBOAK OSATZEN DITUZTEN ONDASUNEN EDO ESKUBIDEEN DESKRIPZIOA (EKOIZPEN-PROZESURA LOTUTA EGON ZEIN EZ). HAIEN BALORAZIO EGUNERATUA ERE BADAKAR (BALORAZIO-IRIZPIDE OROKORREN ARABERA EGINA), ETA BAITA HAIEN KARGEN ZEHAZTAPENA ERE:***

| AKTIBO-MOTA | DESKRIBAPENA | GURE JARDUNEAN ERABILTZEN DUGU (MARKATU dagokizuna): | BALORAZIO EGUNERATUA | KARGAK |
|---|---|---|---|---|
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |
| | | Bai☐ Ez☐ | | |

Espedienteak berariazko memoria bat ere badakarrela *eta han daudela deskribaturik enpresaren aktiboak osatzen dituzten ondasunak edo eskubideak (berdin dio ekoizpen-prozesura lotuta dauden edo ez), haien balorazio eguneratua (balorazio-irizpide orokorren arabera egina), eta baita haien kargen zehaztapena ere.*

Bai ☐ Ez ☐ (jarri dagokiona)

---------------------------------------------------------------------------, -----------------*(e)ko* ------------------------------------------*aren* -----------*(a)*

Sinadura eta zigilua